

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2012ko ekainaren 26a. IX. urtea. 2.373. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Zaintza lokalizatuko zerbitzua ezarri nahi dutela salatu dute

Leitzako eta Aresoko 500 bat pertsonak gaur egun dagoen sistemaren alde egin dute, hau da, osasun etxean 24 orduko zerbitzuaren alde **o3**



Leitzako eta Aresoko bizilagunak, Leitzako plazan. PABLO FEO

‘Neskeraz’ lanak emango dio hasiera, gaur, Amaro zko Antzerki Asteari

Igandera arte haurrei zein helduei zuzendutako antzezlanak eskainiko dituzte; gaur, mundua emakumeen ikuspuntutik irudikatuko dute **o3**

→ **Sanjoanok ospatuz.** Bukatu dira San Joan jaiak. Tolosaldean, Tolosaz gain, Abaltzisketan eta Belauntzan ospatzen dituzte, baina abaltzisketarak izan ziren festak amaitzen lehenak. Izan ere, Tolosan eta Belauntzan (irudian) atzo ere izan zituzten ekitaldiak, batez ere, haur eta gazteek. Jaiez gain, hala ere, San Joan egunean ohiko suak piztu zituzten Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan. **o4-5**



XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure
argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Sari
mundialak!

**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**
902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40
VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

Irudia › Alegia



GARAIALDERI OMENALDIA

Paulo Garaialde omendu zuten larunbatean, Alegian. Garaialde taxista zen, eta Triple A taldeak hil zuen 1982. urteko urtarrilaren 2an, Berastegin. Herritarrek bere omeneko plaka jarri zuten larunbatean, taxi geltokiko plazan. Ekitaldi horrekin, udalak eta Alegiako ezker abertzaleak omenaldi xumea egin nahi izan diote. Plaka jartzera-koan, bertan izan ziren Garaialderen senitartekoak. A. IMAZ

Irudia › Tolosa



ASKE IKUSI NAHI DUTE

Pello Odriozola preso tolosarrari «biziarteko zigorrik» ez ezartzeko eta bere askatasuna eskatzeko ekimenak elkarretaratze batekin hasi zituen Herrira mugimenduak, San Joan jaiekin batera. Gaur, agerraldi jendetsua egingo dute, 19:00etan, Tolosako udaletxearen aurrean. Bestalde, larunbatean Odriozola preso dagoen Zuera espetxera joateko autobuserako zerrendak ohiko lekuetan daude. I.G.L.

Irudia › Ibarra



ETORKIZUNARI BEGIRA

Udalak herritarrei etorkizuneko Ibarra nolakoa nahi duten erabakitzeko aukera jarri die. Larunbatean, goiz guztian zehar, arau berriztatzaileen inguruko hausnarketa egin zuten udal ordezkariak herritarrekin batera, horretarako Euskal Herria kaleko 37. zenbakian jarri duten lokalean. Arurreragao beste salo batzuk egingo dituzte. A. IMAZ

Amarozko Antzerki Astean, haurrei zein helduei zuzendutako emanaldiak

Tolosako auzoko Pailaztana Klown Taldearen 'Neskeraz' antzezlanak zabalduko du, gaur, jaialdia

Imanol Garcia Landa

Amarozko Antzerki Artisauak taldeak hamalagarrenez antolatuta du Antzerki Astea. Aurrean, familiei zuzentzeaz gain, berriro helduei zabaldu die egitaraua, eta gaur hasi eta igandera arte hainbat emanaldi antolatu dituzte.

Amaroz auzoko Pailaztana Klown Taldeak egingo du lehe-

nengo emanaldia, gaur, *Neskeraz* lanarekin. Helduentzako antzezlan da, eta bertan mundua emakumeen ikuspuntutik irudikatuko dute. Bihar, Intujai Teatrotoren eskutik txotxongilo tailerra izango da, adin guztiei zuzenduta. Tailerrean parte hartzen dutenek antzeztoki txiki bat eta txotxongilo pare bat egingo dituzte. Gauean, Tolosako antzerki tailerraren Tic-Tac taldeak eta Gasteizko VanTaRe taldeak (Javi Estebanek tolosarrak sortutakoa) hiru antzezlan motz emango dituzte, helduei zuzendutakoak. Karmakros talde zumarragarrik ostegunean haurrei zuzendutako kontakizunak emango ditu. Egun honetarako egitaraua Amarozko auzo etxean egingo dute.

Auzoko festak hastearekin batera, kalea bihurtuko da Amarozko Antzerki Astearen agertoki. Ostiralean Sanbhu talde iruñarrak haurrei zuzendutako emanaldia emango du. Larunbatean, aurretik Amarotzen egondako Los Kikolas taldeak testurik gabeko antzerkiaren eta akrobazien eta esku jokoen bidez alaituko du arratsaldea. Azkenik, igandean, asteari amaiera magikoa emateko, Mago Diego eta Jon Zabala magoek «gertuko magia» erakutsiko dute.

↓ **Egitaraua**

EKAINAK 26, GAUR

■ **22:15.** Pailaztana Klown Taldearen *Neskeraz* lana.

EKAINAK 27, BIHAR

■ **19:00.** Intujai Teatrotoren txotxongilo tailerra.
 ■ **22:15.** Tic-Tac taldearen *Zoriontasun itsua*, eta Vantare taldearen *Oh fortuna eta Al otro lado del espejo*.

EKAINAK 28, ETZI

■ **19:00.** Karmakros taldearen *Karmakros kontuetan*.

EKAINAK 29, OSTIRALA

■ **18:30.** Sanbhu taldearen *Katklown*.

EKAINAK 30, LARUNBATA

■ **17:00.** Los Kikolas taldearen *Sin remite*.

UZTAILAK 1, IGANDEA

■ **17:00.** Mago Diego eta Jon Zabala magoen *Magia de cerca*.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Oporretarako apartamentua, Peñiskolan. 7 pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igerileku, aire egokitua eta parking-a dauzka. Interesatuek dei dezatela 696 60 25 27 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia ◊ Leitza

PROTESTA JENDETSUA GOI TENTSIOKO LINEAREN AURKA

100 lagun inguru elkartu ziren larunbat goizean, goi tentsioko linearen aurka. Araitx, Imotz, Larraun, Basaburua eta Leitzaldeko herritarrak elkartu ziren Leitzako plazan proiektu horren aurka protesta egiteko, Dicastillo eta Itsaso arteko autopista elektrikoaren kontrako plataformak deituta. Adierazi dutenaren arabera, datozen eguntan erabakiko dute Madrilen zein linea bultzatuko duten. Hori dela eta, plataformako kideen esanetan, «inoiz baino garrantzitsuagoa da herritarrek antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzea». PABLO FEO



Herri krosean eta afarian izena emateko gaur izango da azken eguna

i. Terradillos Leaburu

Ostiralean hasiko dira San Pedro jaiak Leaburun, eta larunbateko herri afarirako eta herri kroserako izena emateko azken eguna gaur izango da. Herri afarirako txartelak erosteko Leaburuako ostatura edo udaletxera joan behar da, eta herri krosean parte hartu nahi duenak, berriz, udaletxera deitu beharko du izena emateko.



Leitzako eta Aresoko 500 lagun baino gehiago elkartu ziren iragan ostiralean osasun arloko murrizketen aurkako jarrera azaltzeko. PABLO FEO

Leitzako eta Aresoko herritarrak osasun arloko murrizketen aurka

Nafarroako Gobernuaren murrizketen ondorioz, zaintza lokalizatu bidezko zerbitzua emango lukete osasun langileek

Herritarren ustez, erreforma «atzerapausoa» da, eta egun dutena mantentzea nahi dute

Iñigo Terradillos

Leitzako eta Aresoko erretiratuak, gazteak, baserritarrak, guraso elkarteko kideak, norbakoak eta udal ordezkariak, 500 lagun baino gehiago orotara, elkartu ziren ostiralean Leitzako plazan, Nafarroako Gobernuak osasun arloan ezarri asmo dituen murrizketen aurkako jarrera azaltzeko. Hain zuzen ere, zaintza lokalizatu bidezko zerbitzua

eman nahi dute, eta herritarrek gaur egungo sistema mantentzea eskatzen dute.

Leitzako osasunetxean 24 orduko zerbitzua izan da orain arte, hau da, sendagilea eta erizaina bertan izan dira kontsultak bukatzen direnetik biharamunera arte, egunero. Bada, Leitzako eta Aresoko herritarren ordezkariak zabalak babesturik buruturiko agerraldian esandakoaren arabera, «zerbitzu oso ona» jasotzen du-

te. Nafarroako Gobernuak ezarri asmo dituen murrizketen ondorioz, ordea, 15:00etatik 08:00etara bitarte zaintzaldi lokalizatuak izango dira. Hau da, langileek ez dute zentroan egon beharrik izango, nahikoa izango dute dagokien eremuaren barnean egotearekin. Larrialdiren bat duten herritarrek 112 telefono zenbakira hots egin beharko dute artatuak izateko.

Neurri horrek asko kezkatzen ditu herritarrak: «Jakín badakigu ez dela berdina 112ra deitu eta zerbitzua berehala jasotzea, edota medikua eta erizainaren zain egotea, askotan lehendabiziko 10 minutuak oso garrantzitsuak izaten baitira bizia salbatzeko».

Beharrezko ikusten dute egun duten zerbitzua mantentzea: «Az-

ken hamarkadan biztanle kopurua hazi egin da, eta era berean, biztanleria gero eta zaharragoa ere badugu; biztanleria zaharra gozateak prozesu kronikoak, ezbehar kardiobaskularrak, ga-

runeko hodietako istripuak eta bestelakoak ugaritzea dakar, eta horrek guztiak 24 orduko arreta eta jarraipena eskatzen du».

Halaber, medikuak eta erizainak ez direla gaur egun daudenak izango azpimarratu dute. «Herritar guztiak ezagunak gara gaur egun, eta horrek asko errazten du medikuen lana», diote. Horrez gain, istripuren bat gertatzen denean, ambulanzia iritsi bitarte bertako larrialdi zerbitzua joaten dela artatzera nabarmendu dute, eta ondorioz, horretan ere eragina izango lukete murrizketek.

Erreformari ezezeko irmoa

Arrazoi horiek argudiatuta, Leitzako eta Aresoko osasun zerbitzuan egin asmo duen erreformari ezezeko irmoa ematen diote, eta Nafarroako Gobernuko ordezkariari neurri horiek berriro azter ditzatela eskatzen diete. Hala, nafar guztiei ematen zaien zerbitzu bera nahi dutela diote, eta gaur egungoa mantentzea eskatzen dute, «zaintzaldi lokalizatuak osasun arretan atzerapauso ekarriko baitute».

Azken osoko bilkuran moztua onartu zuten, murrizketen aurka, eta orain Nafarroako Gobernuko ordezkariari, eta bereziki, Marta Vera osasun kontseilariari helaraziko dizkiete, euren aldarrikapen eta eskariak.

Tolosaldeko Udala

IRAGARKIA

Tolosaldeko Udalak PEIOEN lan polita bat sortu behar du, dituen beharrei aurre egiteko

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak Tolosaldeko Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zokian, edota udaleko web orrian (www.tolosaldeko.net).

-Eskaraak aurkezteko epea 2012ko uztailaren 9an bukatzen da.

Tolosa, 2012ko ekainaren 21a.
ALKATEA,
IBAI IRIARTE SAN VICENTE

Tolosaldeko Udala

IRAGARKIA

Tolosaldeko Udalak Kontuhartzaile teknikari bat hartu behar du aldi baterako, dituen beharrei aurre egiteko

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak Tolosaldeko Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zokian, edota udaleko web orrian (www.tolosaldeko.net).

-Eskaraak aurkezteko epea 2012ko uztailaren 4an bukatzen da.

Tolosa, 2012ko ekainaren 21a.
ALKATEA,
IBAI IRIARTE SAN VICENTE



Kuadrillen bakarrak 1.600 lagun inguru elkartu ziren, larunbatean, txiki gelditu zen Euskal Herria plazan. Eguzkitik gordetzeko hamaka eskaintzuz busi ziren bertan. [A. MUA](#)

Jaietan parte hartze zuzena sustatuz

Asier Imaz Tolosa


Tolosako San Joan jaiak atzo amaitu ziren. Hasiera, ostiralean izan zuten, jai batzordeko Juan Bautista Aranzaberen eta Karlos Mufioaren eskutik. Bi tolosar hauek izan ziren txupinazoa jaurti zutenak, batzordean egindako lan gurtiagatik, herritarren onerakdi xume bari jasoaz.

Inauterietako eztanda koloretua urrun gelditzen den arren, sanjoanetan parte hartzea handituz doa. Alde batetik, tradizioaren inguruan elkartzeko dira tolosarrak jai hauetan, eskopetaritz jarraitza. Aurretik, 1.800 lagun inguru. Bestalde, aspimarratzekoa da

tradizio bidean doan kuadrillen eguna. Urteak urtera gero eta jende gehiago elkartzen da kuadrillen bakarrak, eta hirrengo urteetan, sanjoanetako ekitaldi jendet suena bilakatu dela dirarik.

Parte hartze zuzenaren bi eredu argienak dira hauek. Gai horietan eskoladunak, urteroko edertasuna ematen die Tolosako sanjoanetari: erraldoiak, buruhandiak, musika emanaldiak, dantzariak, su artifizialak, San Joan besperako suak...

Horrez gain, jaien barruan, santuen kalejirak igandean zehar hartu zituzten Tolosako kaleak, prozesioan.



Txupinazoa lehortzean hasi ziren erraldoiak dantzan, eskopetarien tiroak ondoren itziti ziren. [I. GARCIA / BERBA SANJOLAKA](#)



Belauntza



HERRIKO JAIK, SANJOANETAN

San Joan egunaren inguruan herriko jaiak ospatzen dituzte Belauntzan. Larunbatean jaurti zuten suzira, eta atzo jaiarekin jarraitzen zuten, hori bai, azken eguna ospatuz. Haurrak izan ziren protagonista jaien amaieran, jolasen lehortu arte lortu baliziren, edeki gozatu, Belauntzako plazan. [A. MUA](#)

Abaltzisketa



ALTXORRAREN BILA JO ETA SU

Sanjoan ospakizunetan Abaltzisketako haurrak larunbat goiz ederra pasa zuten altxorren bila. Taldeka banatu ziren, eta herria hankaz gora jarri zuten, bertan aurkitzen ziren altxorra aurkitu nahian. Aurretik, ordea, talde lanean pistak blatu eta aurkitzen ibili ziren, guraoen laguntzarekin, hamaka proba gaituz. [A. MUA](#)

Asteasu



KARTA JOKO ARRAKASTATSUA

Larunbateko suaren aurretik, pilotalekuan, giro beroan elkartu ziren asteasuarrak. Alde batetik mus txapelketa jokatu zuten 23 bikoteren artean, eta aildamenetan, beste talde batean, tximto txapelketa antolatu zuten. Kasu honetan hamasei lagunek eman zuten izena, eta gehienak emakumeak ziren. [A. MUA](#)

Anoeta



ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

Sanjoan ospatzen hasita, handira joan behar izaten da, eta Anoetan erraldoiak eta buruhandien laguntzaz itziti ziren tamaina honetara. Haur eta gazteboak korrika ibili ziren larunbatean, maskunen kolpeak ekidin nahian. Suaren aurretik, herri afaria egin zuten plazan anoetarrek. [A. MUA](#)

Bidegoian



UDARI ONGIETORRI EDERRA EGIN DIETE

Eskualdeetako herri eta txoko gehienek jarraiki, Bidegoianen sua piztu zuten larunbat gauean. Gu-berri gorabehera 70 pertsona elkartu ziren San Joan besperako suaren inguruan. Etxetik eramandako afari mokadua eginez eman zieten hasiera ospa-



Antolatzailea: Odiizia Rugby Elkarteak. Laguntzaileak: Odiizako Udala

kizunari haurrak elkarrekin jolasen ibili ziren futboleko parkean, eta guraoak eta haur helduek briletan baloera ausartu ziren. Esan beharrik ez dago, Bidania eta Goiatzako herriarrek giro ederrean eman dietela hasiera udari. [A. MUA](#)

Donostiako triatloian Maider Gaztañagak hirugarren postua lortu du

Onditz Memorialaren XXVII. proban, Egoitz Zalakin zortzigarren eta Aimar Agirresarobe bederatzigarren izan dira

Enertiz Maiz

Igandean jokatu zen Donostiako Onditz Memorialaren XXVII. lasterketa. Izen handiko proba da, eta eskualdeko kirolariek, beste behin, emaitza bikainak lortu dituzte.

Emakumezkoetan, Ashlee Bailie eta Natalie Van Coevorden australiarren atzetik, hirugarren postuan sailkatu zen Tolosaldea Triatloi Taldeko Maider Gaztañaga. 2 ordu 16 minutu eta 32 segundoko denbora egin zuen. Bederatzigarren postua, berriz, Saltoki Trikideak taldeko Itsaso Leundarentzat izan zen. Hernialdearrak 2 ordu 30 minutu eta 52 segundo behar izan zituen proba amaiteko. Tolosaldea Triatloi Taldekoa den Maialen Muñozek 28. postuan amaitu zuen.

Gizonezkoen kasuan, Eneko Llanosek eskuratu zuen garaipena. Donostian lortzen duen bos-



Gaztañaga beste proba batean.

garren garaipena zen igandekoa, eta ordu bat eta 57 minutu behar izan zituen proba bukatzeko. Atzetik Francisc Godoi eta Ryan Bailie sailkatu ziren. Zortzigarren postua izan zen Atletico San Sebastian taldeko Egoitz Zalakin tolosararentzat, eta 2 ordu 4 minutu eta 15 segundoko denbora egin zuen. Segundo gutxira, herrikide eta taldekide duen Aimar Agirresarobe helmugaratu zen bederatzigarren eginez. Honek, 2 ordu 4 minutu eta 31 segundoko denbora egin zuen.

Emakumeak izan ziren lehenak helmugatik ateratzen, eta ha-

mabost minutu geroago izan zen gizonezkoen txanda. 1.500 metro igerian, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika egin behar izan zituzten lasterkariek. Aurtengoan, 704 kirolarik parte hartu zuten.

Taldea ere, ondo

Emakumeen taldekako lehen postua, Itsaso Leundaren Saltoki Trikideak taldearentzat izan zen. Gizonezkoetan, aldiz, lehen postua Llanostarren taldeak eskuratu zuen. Ondiz Memorialean, Zalakin eta Agirresaroberen Atletico San Sebastian taldeak hirugarren postua eskuratu zuen.

Tolosaldeko Triatloi taldeak ere emaitza bikaina lortu zuen, taldekakoan laugarren postua eskuratu zuen. Tolosaldeko Triatloi taldeko Aitor Regillaga, Ion Artutxa eta Gorka Sarasolak puntuatu zuten. Regillagak 14. postuan amaitu zuen, Artutxak 35. postua egin zuen eta Sarasolak 54. postua. Hauek gain, Danel Leundak 324. egin zuen eta Joseba Andoni Uraldek, 467. postuan amaitu zuen. Guztira, gizonezkoen 57 taldek parte hartu zuten.

• tolosaldean@hitza.info

Etxaburuak ia erabakita utzi du Emakumezkoen Liga

Bigarren jardunaldia ere irabazi egin du Alatzne Etxaburuak; Bixente Mitxelena izan zen nagusi gizonezkoetan

E. Maiz

Euskal Herriko Segako Ligaren bigarren jardunaldia jokatu zen, larunbatean, Etxalekun. Emakumezkoen Ligan, eta bigarren astetzer jarraian, ez du hutsik egin Alatzne Etxaburuak zizurkildarrrak. Lehen postua eskuratu zuen Arrate Garinen aurretik sailkatuz. Azken jardunaldiari begira, ia erabakita utzi zuen Etxaburuak, eta hirugarren eta azken jardunaldian oso lan txarra egin beharko luke garaipenak ihes egiteko.

Lehen jardunaldian ezin izan zuen parte hartu Arrate Garin legorretarrak, eta bigarren jardunaldian irabazteko faboritua zen arren, 35 metro karratuak mozteten Alatzne Etxaburuak aurrea hartu zion. Atzetik, Aloña Galarraga, Otamendi eta Antsa sailkatu ziren.

Gizonezkoen kasuan, ordea,



Etxaburu segan. E. SARASOLA

maila parekatuagoa dago. Bi jardunaldiren ostean, lehen postuari Igor Esnaola legorretarrak eusten badio ere, bigarren jardunaldia, Bixente Mitxelenarentzat izan zen. Honen atzetik bukatu zituen lanak Esnaolak, Altzok, Goenagak eta Artzelusek. Guztiak ere denbora tarte txikiak dabilta, eta lehen postutarako lehia ziurtatua dago. Hauek, 100 metro karratuko sailak moztu behar izan zituzten.

Beraz, gizonezkoen kasuan, erabakigarria izango da uztailaren 22an, Zaldibian jokatu den finala. Emakumeek, berriz, lehen postua eskuratzeara zailagoa izango dute.

Berrobik bi partida irabazita lanak zail jarri dizkio Bidegoiani

Kadete eta nagusien mailako partidak irabazi zituen Berrobik etxean; ostiralean izango dira itzulikoak Bidegoianen

E. Maiz Berrobi

Herriarteko Pilota Txapelketan Berrobik eta Bidegoianek elkarren aurka jokatu zuten, igandean. Finalurrekoetara iritsi dira, eta joanekoak Berrobin jokatu zituzten. Hiru partidetatik bi Berrobik irabazi zituen.

Lehen partida, kadeteen mailakoa izan zen. Zubiria eta Erauskinen irabazi zuten Urdapilleta eta Urdapilleta bikotea 16 tantotan utzi. Bigarren partidari, Alberdi eta Elustondok, Zelaia eta Aburuzaren aurka jokatu zuten. Lehen partidako markagailu bera errepikatu zen, garaipena eta porrota aldatuz. 16 eta 22ko markagailua-

rekin garaipena Bidegoiandarentzat izan zen. Nagusien mailakoan, berriz, berrobitarrek erraz lortu zuten garaipena. Iraxusta eta Altuna bikotea iritsi zen 22ra, Senperena eta Galarraga bikotea 6 tantotan utzi.

Itzuliko partidak zail jarri zaizkie Bidegoiango pilotariek. Ostiralean, hilaren 29an, 19:30ean jokatu dira hiru partidak. Luis Galarragak, zail ikusten du, baina itxaropenik ez du galdu: «Guretzako txarra da 16 tanto aurka edukitzea. Borroka egin beharko da. Guk lanak ondo egin, eta aurrerakariak urduri jartzen saiatu beharko gara», azaldu du. Arkaitz Aurkia berrobitarrek gakoa kadeteen mailako partidari egon zela argitu du. Ez du garaipena ziur ikusten, «partidak jokatu egin behar dira, eta lanak ondo egiteko bi partida irabazi egin behar ditugu ostiralean», dio. Irabazlea finalean izango da, eta partidak uztailaren 8an izango dira.

Iparraldeko Joko Torneoaren finalak igandean jokatu dira, Burgin

Josetxo Urrutia harria jasotzen eta txingetan parte hartzen ari da; bigarren jardunaldia Uhartan jokatu da

Erredakzioa Leitza

Iparraldeko Joko Torneoaren azken txanpara iristear da. Igandean, uztailaren 1ean jokatu da azken kanporaketa, 12:30ean. Burgin izango da. Bigarren jardunaldia igandean izan zen, Uhartan. Lokotxak, ingudea, harria, las-toa, zakua eta txingekin izan dira probak egiteko erabili dituztenak. Josetxo Urrutia leitzaarra, harriarekin eta txingekin aritu da. Harriarekin, lehen postua eskuratu zuen ziliindroari 10 altxaldi, burkikoari 8 eta bolari 10 emanda. Txingekin, aldiz, bost plaza egin zituzten azken postuan sailkatuz.

Ipintza anaiek irabazi dute Otañoren aurkakoa

Lau segundogatik galdu du desafioa Otañok; Urrezko Aizkolariaren Ligan Azurmendiren aurka ariko da, bihar

Erredakzioa Abaltzisketa

Abaltzisketako San Joan jaiaren barruan, igandean, aizkora apustu zegoen jokoan. Herriko bi seme, Unai Otaño aizkolari ibartarraren aurka aritu ziren, eta gutxiagatik bada ere, garaipena etxean gertatu zen.

Otañok alde eman zien Abaltzisketako Ipintza anaiei, eta hauek ederki aprobetxatu zuten aukera. Desafioa lau segundok baino ez zuten erabaki. Plaza jendez bete zen, eta azken unera arte izan zuten emozioa.

Unai Otañok zortzi 60 ontzako moztu behar izan zituen, eta Ipintza anaiek, zortzi kana erdiko. Enbor handiagoak ziren Otañorenak, eta alde nabaria zen. Hala

ere, lan bikaina egin zuten hiru aizkolariak. Ipintza anaiek 26 minutu eta 18 segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko. Unai Otañok, berriz, 26 minutu eta 22 segundoko gelditu zen erlojuan. Lau segundoko alde baino ez zen izan bikotea eta bakarlariaren artean.

Urrezko Aizkolariaren Liga, bihar

Unai Otaño ibartarrak Urrezko Aizkolariaren Txapelketan parte hartuko du, eta bihar, hilak 27, Hernanin izango du bere txanda. 12:30ean hasiko da kanporaketa, eta Tilos frontoian izango da. Kasu honetan, Iñaki Azurmendi izango du aurkaria. Bakarkako saioa izango da, eta sei modalitate ezberdinetan banatuta, hamar enbor ebaki beharko dituzte.

Lehen kanporaketa, Floren Nazabalen eta Donato Larretxearen artekoa izan zen, igandean. Garaipena Nazabalek eskuratu zuen, jokatu beharreko sei probetatik bostetan irabaziz.

• tolosaldean@hitza.info

Txirrindularitza, arrauna eta zesta-punta, sanjoanetan

Anza Memorialean Beñat Txoperena txirrindularia izan da lehena eta Jon Ander Insausti bigarren

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako San Joan jaietan kirolak ere badu tarterik. Asteburu honetan, XXI. San Joan Zesta-Punta Txapelketa, XXXIX. Jose Maria Anza Memoriale txirrindularitza lasterketa eta batel estropadak izan dira.

Txirrindularitzari dagokionez herenegun egindako beroak ez zituen kirolari amateurrek kikildu eta lasterketa txukuna egin zuten. Helmugaratzen lehena Beñat Txoperena izan zen; Bidelan Kirolgiko taldeko gazteak bi ordu

58 minutu eta 08 segundo behar izan zituen. Denbora bera behar izan zuen bigarren sailkatu zenak, talde bereko Jon Ander Insaustik. Hirugarrenak, talde bereko Unai Itziartek, 40 segundo gehiago behar izan zituen. Lau garrenak ere Intziarteren denbora bera egin zuen; Seguros Bilbao Marcos Jurado. Bosgarren Naturgas-eko Mikel Iturriak egin zuen, lehenengoak baino minutu bat eta 23 segundo gehiago behar izan zituen. Lasterketa Lehendakari Txapelketaren barruan dago.

Estropedei dagokionez, Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariak izan ziren garaileak. Nesken hasiberrien mailan TAK izan zen nagusi, eta neska jubeniletan zein absolutuetan Getariako taldeak.

Mutiletan berriz, hiru mailatan

irabazi zuten TAKEko arraunlariak; infantiletan, kadeteetan eta jubeniletan.

Zesta-punta

Zesta-puntako San Joan lehiaketari dagokionez, kadeteen eta nagusien finalerdiak jokatu zituzten lehenik eta behin. Kadeteen mailan Izagirre-Muñagorri 20-13 irabazi zion Sukia-Gomez bikoteari, eta Lekuona-Agüerok 20-14, Lertxundi-Amundaraini. Nagusien mailan Lopez-Telleria bikoteak 25-24 irabazi zion Tolosa-Jauregiri, eta Altuna-Rabadanek 25-18 Izagirre-Errondosori.

Finaletako emaitzei dagokionez, kadeteetan Izagirre-Muñagorri bikoteak irabazi zion Lekuona-Agüerori, 25-21. Eta nagusietan Altuna-Rabadan bikotea izan zen garaile Lopez-Telleria 19 tantotan utzita.



Herenegun goizean izan ziren estropadak, Orian. E. SARASOLA



Zesta-punta txapelketako familia argazkia. HITZA

Villabonako alebinek 2-3 emaitzarekin irabazi dute

R.C. Villabona

Billabona FKE taldeko alebinek bukatu dute denboraldia jada, eta ondo gainera, izan ere, Tolosako Adiskidetasun Txapelketa irabazi dute. Tolosan izan zen finala, eta 2-3ko emaitza izan zuten.

Finala ez zen ondo hasi billabo-

natarrentzat, 2-0 hasi baitzuten joko, baina buelta eman, hiru gol sartzea lortu zuten azkenean.

Villabonako futboleko taldeak kostata lortu zuen finalerako txartela. Finalerdia Venta de Bañosen aurka jokatu zuen, eta berdinketa izan eta gero, penaltita lortu zuten billabonatarrek garaipena.



Alebinek bikain bukatu dute denboraldia, garaipen batekin. HITZA

Belabietak bukatu du gimnastika erritmikoko denboraldia

Belabietako gimnastek emaitza onak lortu dituztela gogoratu dute taldeko entrenatzaileek

R.C. Ibarra

Ibarrako gimnastika erritmikoko Belabietako taldeak bukatu du ikasturtea, eta entrenatzaileek «oso pozik» daudela esan dute; «oso pozik gaude egindako lanarekin».

Aurten ere helduenak izan dira taldeko emaitzarik onenak lortu dituztenak; «hau horrela izatea ona da kirolarientzat, urtean zehar egindako lanak fruitua ematen duela ikusten da», esan dute.

Horiek horrela hauek dira lortutako emaitzak: Leire Mendigarinek bigarren egin zuen Gipuzkoako Txapelketako infantileta-



Belabietako gimnastika erritmikoko taldeak lan bikaina egin du. HITZA

ko B mailan; seniorretako A taldeak hirugarren egin zuen Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan; azken maila honetako Izaro Esnaolak, gainera, hirugarren egin zuen Gipuzkoako Txapelketan; jubeniletako A mailan Maider Zabalak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen; eta Miren Eceizak

zintarekin, bigarren egin zuen Euskadiko Txapelketan.

Era berean, Belabietako arduradunek datorren ikasturtean izena eman nahi dutenei *belabietake@yahoo.es* helbidera idazteko edota 662 125497 edo 657 71 9533 telefono zenbakietara deitzeko gogoratu nahi izan diete.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**

Irudia **Leitza**



OMENALDI «HUNKIGARRIA» LASARTERI

Leitzan jaiotako Manuel Lasarte bertsolariak omenaldi «xume eta hunkigarria» jaso zuen pasa den ostiralean, Orioko Karela kiroldegian. Lasarte otsailaren 12an hil zen, eta lotura estua zuen ekitaldia antolatatu duten hiru herriekin, Leitza, Aia eta Oriorekin, alegia. Izan ere, Leitzan jaio bazen ere, Aian bizitu izan zen lehenengo, eta

Orion, ondoren. Omenaldian hainbat bertsolari eta musikari eta kantarik hartu zuten parte, tartean Leitzako Migel Mari Elosegi Lu-zek eta Iñaki Perurenak eta Albizturgo Anjel Mari Peñagarikanok. Manuel Lasarteren seme Eusebio ere oholtzara igo zen aita zena bertsoz agurtzera. HITZA



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Aisia Orio Hotela
Bi laguntzako sasoiari jartzeko zirkuitua eta bazkaria



Zatoz uda honetan gure terraza ikusgarriez gozatzera! Uztailak leian irekitzen degu. Abakando-arroz menua eta txuleta menua 18 eurotik aurrera. Plater konbinatuak, anoak, pintxoak, kopak, eta abar. Dena terrazan zerbitzatzen dugu eta prezioak krisiaren kontrakoak!

Hondartza bidea, 1 • Orio
Tel.: 943-89 44 40
www.aisiahoteles.com/orio

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**


2 Mahala sorta
Bi sorta



Mahala Berri baserrira
Leaburu
Tel.: 943-67 07 24

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 Txindokiko itzala
Hiru laguntzat bina sarrera



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

4 Donostiako Aquariuma
Bi laguntzat bina sarrera



www.aquariumss.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

Parte hartzeko deitu edo idatziz: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaitzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.